

Diru - iturriak:

Gure produktua bereziki pertsona ezinduentzat eraikita dago, ibiltzeko zailtasuna edo fisikoki beste gaitz bat dutenentzat. Gure konpainia, guztiek bizitza errazagoa eta praktikoagoa izateko egina dago, eta horregatik publikoarentzat arrazoizko prezio ekonomiko bat dugu, denek Sunsaver erosi ahal izateko.

Honek guztiak irabazi finko batzuk dauzka, gure Sunsaver aulkiak 2000€-ko kostua dute, orduan hilabetero saldutako aulki bakoitzeko irabazi finko bat lortuko dugu, bestalde, gobernuak 25.000€-ko dirulaguntza emanten digu, gure enpresa base teknologiko eta berrikuntzan oinarritzen delako; izan ere, eguzki plaken bidez mugitzen diren aulki gurpindunak aurrerapen teknologiko nabarmena dira. Horrez gain, Eusko Jaularitzakin adostaturik batera iritsi ondoren, gizarteari on egiteagatik diru laguntza txiki bat emango digute hileroko. Laguntza txikiak ere balio handia dute guretzat. Horrez gain, ekintzailentzat bereziki disenatutako baldintza eta ezaugarriekin mailegu bat lortu dugu, gu gazte ekintzaileak garenez, zehazki lehen fasean dagoen enpresa txiki edo ertain baten jabea, hasiera batean 300.000€-ko emango dizkigute. Honekin guztiarekin, gure enpresa sortzen hasteko laguntza handia lortu dugu, guk inbertitutakoaz gain kanpotik kapitala lortzea ezinbestekoa da.

Dauzkagun inbertsio eta diru sarrerez gain, publizitate txukun eta erakargarri bat izatea behar-beharrezkoa dela iruditzen zaigu etekin handiagoak lortzeko. Baina hasiera batean ez dugunez dirua horretan inbertitzeko eta gaur egun sare sozialak, ordaindu gabekoak, direnez informazio iturri nagusia mundu osoan, guk ere kontu bat irikitzea erabaki dugu gure produktua zabaltzeko. Plataforma askotan aurkituko gaituzue, esate baterako; instagram, tik-tok, facebook eta habar @sunsaver izenpean. Nahiz eta, gure erosle gehienak sare sozialak ez eduki, publikoan impaktua sortzea eta gure enpresaz jakinaraztea izango da gure helburua, bezeroen historia unkiarriak kontatuz.